

Inmigrazioari buruzko diskurtso heuristikoaren azterketa

Santiago Palacios Navarro

santiago.palacios@ehu.es
Irakaslea, Bilakaeraren eta Hezkuntzaren Psikologia Saila
Donostiako Irakasleen UE
Euskal Herriko Unibertsitatea

Blanca Olalde López de Arechavaleta

Irakaslea / Kulturanutzerako baliabide-teknikaria
Berritzegune
Gasteiz

GAKO-HITZAK: Bigarren Hezkunta. Unibertsitate-hezkuntza. Arrazonamendu heuristikoa. Kulturarteko hezkuntza. Immigrazioa. Estereotipoak.

1. SARRERA

Betidanik izan giza-migrazioak Historian zehar. Esan daiteke borondatez edo nahitaez, gizadia beti egon dela mugimenduan. Mendeetan zehar jendeak bidaiatzeko beharra izan du, batetik bestera mugitzekoa. Bake nahiz gerra garaietan beste kultura batzuk ezagutu dira eta elkarrekin bizi izan dira. Izan ere, gizarte gehienek jatorrizko kontakizunetan bada migrazio-istorioren bat. Lucianik (1993) adierazten duen bezala, harrigarria da migrazio fenomenoaren endekapentzat hartzea, gizadian zeharo errotua izan bada. Immigrazioa prozesua dinamikoa da eta hainbat testuingurutan garatzen da (gerrak, hondamendi naturalak...) eta zenbait eskaletan (tokian tokikoa, eskualdekkoa, nazioartekoa...). Kausa desberdinek eragiten dute (egoera ekonomiko hobearen bilaketa, langileen eskaerak...) eta hainbat eragin ditu, bai jatorrizko lurraldeentzat, bai lurralde hartzaileentzat (Solé, 2001).

Izan ere, immigrazioa gizartea aldatzen duen fenomeno anitz eta multidimentsionala da. Immigrazio fenomenoak erronka berriei (sozio-politikoei, ekonomikoei, hezkuntzakoei, etikoei...) aurre egiteko etengabeko beharra dakar berarekin. Erronka horiei modu egokian aurre emateak kul-

turarteko gizarte batean bizitzeko prest egotea esan nahi du. Gizakideen hezkuntzarako funtzioa duenez gero, eskola lekurik garrantzitsuenetakoa da gaur egungo gizartearen aniztasunari erantzun eraginkor bat emateko.

Aguado (2004), egungo gizartearen aniztasuna dela eta, kulturarteko hezkuntzak hezkuntzaren hausnarketa eskatzen duelakoan dago, aniztasuna oinarritzat hartuta; bestalde, eskola aukera berdintasunerako eta aldaketa sozialerako espazioa izango da (Carbonell, 1999).

Estatuek ere ezinbesteko papera jokatzen dute migrazio-fenomenoetan beraien politika ekonomikoa, soziala, hezkuntzako, lanekoa, nazioarteko lankidetzakoa, immigrazioa eta herritartasuna definitzeko eta erregulatzeko orduan.

Bilbeny filosofoak (2002) esaten duenez, mundua gero eta txikiago egin zaigu eta aldi berean anitzago, hurbilago, eta aurrez ikus ezinagoa; guztion kultura konpartitua sortzea proposatzen du, eta kulturarteko etika horretan talde edo kultura jakin baten baloreak eta ohiturak beste taldeen gainean ezin direla bultzatu edo jakintzat eman azpimarratzen du.

Komunikabideek ere eragin handia dute aniztasunaren ikuspegian, eta pertsonok beste talde sozial eta kulturaleri buruz egiten dugun kategoriazioetan ere, eta batzuetan orokortzeko edo sinplifikatzeko joera sustatzen dute (Lorite, 2004). Hartzaileei heltzen zaizkien irudiek holako edo halako eragina izan dezakete irudiei emandako tratamenduaren arabera.

Kulturarteko gizarte batek marko tradizionalen aldaketa sakonak eskatzen ditu, bai eta kulturarteko elkarbizitzarako hezkuntza eraikitzeko beharra (Zanfrini, 2007). Elkarrekin bizitzen ikasteko beharrezkoa da *Bestea* hobeto ulertzea, bere mundua hobeto ulertzea, eta kulturarteko komunikazioan konpetentziak garatzea, beste kulturen edo identitateen orokorpenak eta estereotipo negatiboak eta aurreiritziak saihesteko.

Hortaz, aniztasun kulturalaren testuinguru horren ildotik, ikerketa hau immigrazioaren fenomenoaren aurreko jarrerak eta ulertzeko moduak aztertzen saiatzen da (De la Corte eta Blanco, 2006). Jakin nahi da zein puntutaraino fenomeno honetaz iritziak osatzean errealitatearen ikuspuntu oso bat dugun edo, aitzitik, ikuspegi hori partziala den, eta zenbait aspektu garrantzitsu albora uzten dituen, horrek zenbait alborapen egitera eramango gaitu. Alborapen horien artean heuristikoen erabilera sartu daiteke.

Hain zuzen ere, immigrazioak sortzen duen erronketako bat kognitiboa da, eta ikerketa honetan hori jorratu nahi da. Kahneman, Slovic eta Tversky-ren lanek (1982) audientzia zabal baten arreta erakarri izan dute eta erakartzen dute gaur egun ere (medikuntza, justizia, ekonomia...), eta terapiak aukeratzeko edo argudio legalak garatzeko erabiltzen dira, besteak beste. Halere, alor horren ikerketa eta aplikazioa eskasa izan da hezkuntzan, eta probabilitatearen irakaskuntzara edo arazo matematikoen ebazpenetara mugatu da (Diaz, 2005). Aitzitik, ez da erlazionatu erabakiak hartzeko prozesuak hobetzearekin edo giza-usteen eraketarekin.

2. AUZIAREN EGOERA

Tversky eta Kahneman heuristikoak aztertzen hasi ziren hirurogeita hamarrek hamarkadaren hasieran, bereziki hiru heuristiko aztertu zituzten: adierazgarritasunaren heuristikoa, eskuragarritasunaren heuristikoa eta ainguratze/doitzeen heuristikoa (Kahneman, Slovic eta Tversky, 1982).

Autore hauek giza-arrazionaltasun mugatua hartu zuten ikerketaren ardatz. Pertsonak beren estimazio probabilitatekoetan inolako sistema arauemailerik ez dutela erabiltzen azaldu zuten, horren ordez, atazen zailtasuna sinplifikatzen duten heuristiko kopuru zehatz batean oinarritzen dira. Ondorio gisa atera zuten heuristikoak nabarmenagoak egiten direla pertsonen informazio probabilitatekoarekin aritzen direnean, abiapuntuak arrazoinamendu estatistikoaren printzipio arauemailetatik urrun daude (Eiser, 1989).

Arrazoibide-ataza askotan heldu gehienek ez zuten erantzun zuzena eman logika edo probabilitate teoriaren arabera (Evans, 2002; Kahneman, Slovic, eta Tversky, 1982).

Pentsamendu arrazionalaren huts egite horren izaera zehatzak eta ondorioak eztabaida handia sortu zuen (Stein, 1996). Alor horretako ikerketatik sortu da ziurgabetasunaren psikologia, gizakiok usteak osatzen eta erabakiak hartzen ditugunean inplikatzeko diren alderdiak azaltzen dituen diziplina (Goldstein eta Hogarth, 2000; Hastie eta Dawes, 2001; Gilovich, Griffin eta Kahneman 2002).

Bestalde, Gigerenzer-ek defendatzen duen heuristiko azkar eta eskasen ikuspuntutik hartutako perspektibak Kahneman, Tversky eta Slovic-en ikuspegiarekiko ezberdina da (1982). Gigerenzer, Todd eta ABC Research Group-en arabera (1999), heuristikoak erabiltzea ez da zehartasunaren eta iritzi zehaztugabearen pareko. Arrazionalitatearen beste ikuspegi bat ematen dute, defendatuz askotan arazo konplexuak hobeto konpondu daitezkeela estrategia sinpleen bidez, konplexuen bitartez baino. Informazio guztia ez daukagunean ezaugarri bat ezagutzea —eta honek aukeraketa irizpidea zehaztea— oso erabilgarria izan daiteke erabaki bat hartzeko (Garcia-Retamero eta Dieckmann, 2006). Hain zuzen ere, heuristikoak garrantzitsuak dira bai erabaki eta iritzi indibidualetan (Galotti, 2007), baita gure gizartearentzat garrantzi handiko auzietan eta polemikoak diren afera publiko edo kolektiboen inguruko epaiketa moral (Sunstein, 2005), politiko (Popkin, 1991) eta legaletan (Wrightman, 1999) ere.

Bestalde, prozesu dualaren teoriak, azken bi hamarkadetan psikologia kognitibo eta sozialaren alorrean gailentzen ari direnak, bi sistema ezberdin planteatzen dituzte giza-arrazonamendua eta -pentsamendua azaltzeko eta ez, ordea, inferentziako mekanismo unibertsal bakarra (Stanovich eta West, 2000; Kruglanski eta Orehek, 2007). «Prozesu bikoitzeko» teoria hauek ez datoz bat xehetasunetan baina bai osagai orokorretan; horien artean azpimarratzekoak dira probabilitatea lantzeko eredia edo ELM (Petty

eta Cacioppo, 1986), eredu heuristiko sistematikoa edo HSM (Chaiken, Liberman eta Eagly, 1989), inferentzia sistema bikoitza: intuitiboa *versus* arrazionala (Kahneman, 2003), sistema asoziatiboa *versus* arauetan oinarritutako sistema (Sloman, 1996) eta abar.

Prozesatze dualaren eredu hauek gainazaleko arrazonamendua eta arrazonamendu zabala bereizten dituzte, alegia, 1 Sistemako operazioak azkarrak dira, ahaleginik gabe gauzatzen dira, asoziatiboak dira, askotan emozioz beteak eta ohiturek gobernatuak, eta 2 Sistemaren arrazonamendua kontzientea eta deliberatua da, geldoagoa da, seriala da, eta ahalegina eskatzen du. Marko teoriko hauxe bera erabakiak hartzeko eremuan erabili da, eta bi sistema hauekin azaldu ahal izan da gizakiok zenbaitetan erabaki intuitiboak hartzen ditugula eta beste zenbaitetan gure erabakiak pentsamendu hipotetikoak eta erreflexiboak gidatzen dituela (Kahneman eta Frederick, 2002).

2.1. Adierazgarritasunaren heuristikoa

Adierazgarritasunaren heuristikoaren arabera, probabilitate epaiketak egiteko informazio zehatz batek prototipoarekin duen antzekotasunean oinarritzen gara. Beste modu batean esanda, A B-rekiko zenbateraino adierazgarria den begiratzen da, benetako probabilitateak kontuan hartu gabe (Tversky eta Kahneman, 1982), (Gilovich, Griffin, eta Kahneman, 2002).

Adierazgarritasun heuristikoak eragindako zehertasunak zenbait aurreiritzi sozialen oinarrian daude, eta hainbatetan jarrera jakin batzuk justifikatzeko erabiltzen dira. Adibidez, etorkinena bezain kolektibo zehatz bateko kide jakin eta zehatz baten jarrera epaitzen edo iragartzen badugu, adierazgarriak diren estereotipoetan oinarritzeko joeraren arabera jokatu dugu, objektiboak diren maiztasun- eta probabilitate-datuak alboratu izan dira. Adierazgarritasunaren muga bat da estereotipatzeko joera, hau da, zenbait ezaugarri talde jakin bateko objektu edo kide guztiei atxikitzea (Moya eta Puertas, 2008).

2.2. Erabilgarritasuna edo eskuragarritasunaren heuristikoa

Eskuragarritasunaren heuristikoak dioenez, gertaera baten probabilitate gertaera horren adibideak gogoratzeko erraztasunaren arabera kalkulatu da (Higgins, 1996).

Heuristiko honek nolabaiteko justifikazioa dauka, maizago gertatzen diren gertakariak hobeto memorizatu eta errekuperatzen baitira. Alabaina, zenbaitetan, erraz gogoratzen duguna ez da adierazkorrena izango, eta ez dugu gertakarien benetako probabilitateak kalkulatu jakingo. Ondorioz, horrek okerreko ondorioetara eramango gaitu (Epley eta Gilovich, 2006).

Gertakari bat gogoratzeko erraztasuna batzuetan beste gertakari batzuekin lotuta egoten da, eta horiek ez dute zerikusirik izaten gertakariaren maiztasun naturalarekin. Adibidez, eduki emozionalagoa duten gertakariak beste batzuk baino eskuragarriagoak dira, eta gertakari batzuk beste batzuk baino errazago imajinatzen dira. Informazio nabarmena edota berriagoa eskuragarriagoa ohi da. Beraz, eskuragarriena ez da beti gertagarriena.

Paulos-ek (1995) dio erabilgarritasun- eta eskuragarritasun-akatsari buruzko lan kopuru handia duela literatura psikologikoak eta hedabideetan asko zabaldutako fenomenoak dela. Hedabideetan egunero ikusten ditugu Espainiako kostaldera iristen diren kaiuko eta pateren irudiak eta horregatik, informazio hori eskuragarriago egoten da gure oroimenean, eta probabilitate errealek ez dute eraginik sortzen gure judizioan. Hamilton-ek (1981) argudiatzen du jendeak asoziazio bat edo irudimenezko korrelazio jakin bat faltuki jasotzen duenean sortzen direla estereotipo mota batzuk. Irudimenezko korrelazioa bi aldagairen artean dagoena baino harreman gehiago hautemateko joera da.

Hau da, bi gertakari bereizgarrialdi berean gertatzen badira, bi horien artean korrelazioa dagoela pentsatzeko joera du jendeak (Chapman, 1967). Lotura hori bi arazoirengatik gertatzen da nagusiki: informazioa prozesatzen duen subjektuaren buruan aurretik ezarritako harreman semantiko bat dagoelako (pertzepzio agerikotasuna) edo maiztasun-ezagatik bi estimulu hauek beste batzuekiko nabarmendu egiten direlako, hau da, bi estimulu bereizgarri dira (pertzepzio bereizgarritasuna).

Irudimenezko korrelazioa immigrazioari buruzko judizio sozialetan agertzen da maiz. Adibidez, zenbaiten ustez immigrazioarekin lapurreta kopurua igo egiten da. Kasu honetan bi aldagai lotzen saiatzen da: immigrazioa eta lapurreta. Irudimenezko korrelazio hau ez da naturala bere horretan, sozialki eraiki da eta indartu egin daiteke, adibidez, komunikabideetan edo diskurtso politikoetan zenbait informazio sarritan aipatzeagatik.

2.3. Ainguratze edo doitze heuristikoa

Zalantza sortzen duten datu batzuen inguruan epaiketak egiten ditugunean erabiltzen da. Hain zuzen ere, abiapuntua erreferentziatzat hartzean anbiguotasuna murriztea lortzen da, eta abiapuntu horri lotzen gatzazkio azken ondorioa bilatzeko.

Gerturatze horretatik sortzen den zehartasun nagusia ainguratze probabilitatea zuzena ez izatea da, eta ondorioz, gero sortzen diren estimazioak hala izango dira, edo ainguratze probabilitate zuzenetik abiatu eta doitzea nahikoa ez izatea (Cervone eta Peake, 1986). Heuristiko honek eragin ezberdinak ditu hainbat alorretan immigrazioari buruzko judizioak egiten ditugunean: probabilitate eta kopuruen estimazioetan, negoziozietan, epaiketeta legaletan eta ezagutza orokorrean.

3. IKERKETA

3.1. Helburuak eta hipotesiak

Bi dira ikerlan honen helburuak: batetik, nerabeek eta gazteek immigrazioari buruz dituzten usteak ezagutzea. Bigarrenik, heuristikoak erabiltzen diren egiaztatzea eta immigrazioari buruzko epaiketen eratzeko eta pertzepzio prozesuan zein zehartasun egiten diren frogatzea. Zentzu horretan, arrazonomendu heuristikoak zehaztutako inferentzia sozialek immigrazioari buruzko ideia eta uste horien gainean eraginik ba ote duten jakin nahi da. Ikerketa honetan azaltzen diren hipotesiak bat datoz honako helburu hauekin:

Immigrazioari buruzko usteak eta diskurtsoa: nagusiki bi diskurtsoren artean mugitzea espero da: diskurtso sozial akasgabea (*impeccable*) eta zorrotza (*implacable*) (Ikusi 1. taula). Bestalde, gutxiengo kulturalak osatzen dituzten taldeekin izandako kontaktu mailak errealitatearen ikuspegi zehatzagoa osatzen lagunduko duela espero da.

Heuristikoak eta immigrazioa: Adierazgarritasun, eskuragarritasun edo ainguratze heuristikoei immigrazioarekin zerikusia duten egoerei buruzko iritzietan eragina izatea espero da, bakoitzaren ezaugarrien arabera eta aurreko ikerketetan jasotakoaren arabera.

1. koadroa

Immigrazioari buruzko diskurtso nagusia

Diskurtso zorrotzaren ideiak	Diskurtso akasgabearen ideiak
<ul style="list-style-type: none">• Etorkin gehiegi dago.	<ul style="list-style-type: none">• Inoiz ez da etorkin gehiegi.
<ul style="list-style-type: none">• Immigrazioak kalte egiten dio lanaren egoerari.	<ul style="list-style-type: none">• Etorkinen esplotazioa da immigrazioarekin lotura daukan lan-arazo bakarra.
<ul style="list-style-type: none">• Immigrazioak delinkuentzia eragiten du.	<ul style="list-style-type: none">• Arrazakeria da immigrazioarekin lotura daukan delitu bakar eta garrantzitsua.
<ul style="list-style-type: none">• Gure kultura eta etorkinena bateraezinak dira.	<ul style="list-style-type: none">• Etorkinek dauzkaten arau kultural guztiak errespetagarriak eta aberasgarriak dira.

3.2. Partehartzaileak

Ikerketa honetan 218 lagunek osatutako lagina erabili da, hain zuzen ere Euskal Herriko (Gipuzkoa eta Araba) D ereduko hainbat ikastetxe publikotako ikasleek hartu dute parte: DBHko 2. ikasturteko 105 ikaslek (batez besteko adina 13,6 urtekoa), DBHko 4. ikasturteko 34 ikaslek (batez

besteko adina 15,7 urtekoa), eta unibertsitateko 1. mailako 79 ikaslek (batez besteko adina 20,9 urtekoa).

3.3. Prozedura

Ikasle horiek 32 itemeko galdetegi bat erantzun zuten. Galdetegi horretan agertzen ziren, batetik, immigrazioari buruz dituzten iritzi edo usteak eta, bestetik, immigrazioari buruzko epaiketetan erabiltzen diren heuristikoekin lotura duten egoera edo kontuak. Galdetegiak galdera ireki nahiz itxiak ditu, eskala haztatuko galderak eta heuristikoen galdera distrakto-reak. Bi galdetegi eredu diseinatu ziren, A eta B, galdera berak zituzten, bi itemetan izan ezik (jasotako erantzunak konparatu ahal izateko azalduko egoera batzuek aukera ezberdinak zituzten).

4. EMAITZAK

4.1. Immigrazioa: usteak/ diskurtsoa

Likert-en eskalan jasotako erantzunetan subjektuek nor bere iritzia ematen du immigrazioari buruzko diskurtso sozialean nagusitzen diren uste batzuen inguruan (Díez, 2004) 1etik 10erako eskalaren arabera. (1. taula)

1. taula
Immigrazioari buruzko iritzien batez besteko puntuazioa

	Harremanak			Orokorra	Sig.
	Ohikoa	Puntuala	Bat ere ez		
Immigrazioa arazoa da	3,96	5,20	5,18	5,04	,094
Lanpostuak kentzen dituzte	3,65	4,00	3,56	3,75	,533
Immigrazioa onuragarria da ekonomikoki	6,91	5,89	5,38	5,77	,012*
Ez dute integratu nahi	3,65	3,86	4,72	4,22	,018*
Kanpotarren presentziak delinkuentzia areagotzen du	4,58	5,46	5,99	5,60	,029*
Immigrazioak kulturalki aberasten gaitu	7,21	6,52	6,34	6,52	,408
Dirua eramaten dute eta ez dute hemen inbertitzen	3,85	5,26	5,13	5,02	,051
Gizarte-laguntza bereganatzen dute	5,19	5,33	4,99	5,16	,683
Hezkuntza- eta kultura-maila baxua dute	4,46	5,06	5,48	5,17	,166

Ikusten denez, ikerketan parte hartzen duten subjektuen iritziak diskurtso sozialaren bi muturren artean mugitzen dira batez ere: zorrotza (immigrazioaren alderdi negatiboak bakarrik azpimarratzen dituzte eta positiboak alboratzen) eta akasgabea (alderdi kulturalen, ekonomikoen eta abarretan immigrazioak eskaintzen duen aberastasuna baloratzen dute, eta batzuetan egungo immigrazio-prozesuak dakartzan arazoak albora uzten dituzte).

Hortaz, hiru talde bereiz daitezke bereziki. Lehenengo taldea (% 59,9) diskurtso sozial akasgabetik gertuen dagoena da, eta iritziek immigrazioaren alderdi positibo eta aberasgarriak azpimarratzen dituzte. Talde honen barruan, immigrazioa ez da arazo gisa baloratzen (horien ustez, emigratzera behartuak izan diren pertsona horientzat da arazo, gizarte hartzailearentzat baino), ezta lehia gisa ere (lanpostua bilatzeko orduan eta abar), immigrazioak gizarte hartzaileari egiten dizkion ekarpen ekonomiko eta kulturalak azpimarratzen dituzte subjektuek.

Bigarren taldea (% 22,8) diskurtso zorrotzetik gertu dago, baina adierazpen sotilagoak egiten dituzte. Subjektu hauen arabera immigrazioa ez da arazo, lehia moduan ikusten dute (adibidez, gizarte laguntza jasotzeko garaian...). Beren epaiketetan ez dira agertzen immigrazioak izan ditzakeen ekarpen positiboak, haien esanetan, hemen bizi diren etorkinek ez dute dirurik gastatzen gure herrialdean, dirua jatorrizko herrialdeetara eramaten dute. Gainera, etorkinen hezkuntza- eta kultura-maila baxuagoa dela defendatzen dute, nahiz eta benetako datuek aurkakoa adierazi. Hain zuzen ere, Ekonomia, Lankidetzeta eta Garapenerako Antolakundearen (OCDE, 2008) txosten baten arabera, OCDEko herrialdeetan dauden langile atzerritarren hezkuntza-maila bertakoena baino handiagoa da. Etorkinen % 23,6k unibertsitate-ikasketak dituzte, eta goi-mailako ikasketak dituzten bertokoen kopurua % 19,1ekoa da. Hala ere, etorkin askok haien prestakuntzari legokioketena baino beheragoko lanpostuak dituzte, askotan, datu horrek bikoiztu egiten du bertokoena.

Azkenik, hirugarren taldean (% 17,3) diskurtso zorrotza, alarmista eta planteamendu arrazista daukaten subjektuak daude. Pertsona hauen usteetan, immigrazioa arazoa da, lehiak inplikatzeko (lanpostu bat lortzeko) eta esaten dute immigranteek beraiek ez dutela integratu nahi izaten eta haien presentziarekin delinkuentziak gora egiten duela.

Talde etniko edo kulturalen arteko harremanei dagokienez, lagin honen arabera noizbehinkakoak dira (% 41,7), edo ia inoiz ez (% 45). Harreman maila handiena jatorri afrikar-musulmanekoen (% 33,6) ohi da, batez ere marokoarrekin. Latinoamerikarrekin ere badute harremana (% 29,6). Harreman hauek noizbehinkakoak badira ere, adierazgarria da arrazoi nagusiak adiskidetasuna eta zaletasun konpartituak (kirolak, musika edo parrandan ateratzea) izatea.

Talde gutxiengodun pertsonetikiko harremanari eta immigrazioari buruz duten iritziari (Likerten eskala) aplikatutako bariantza-analisiak (faktore baten ANOVA) baieztatzen du beste talde kultural bateko pertsonekin harremana edukitzeak ikuspegi baikorragoa izaten laguntzen duela, eta kasu

honetan errealitatearekin zerikusi handiago duela eta, ziur aski, heuristikoek sortzen dituzten zehartasunik gabea dela (Ikus 1. taula). Hartara, ezberdintasun adierazgarriak ikus daitezke hiru itemetan; harreman gutxien dutenek joera handiagoa dute pentsatzeko immigrazioa ez dela ekonomikoki onuragarria, etorkinek ez dutela integratu nahi, edo haiekin delinkuentziak gora egiten duela.

4.2. Heuristikoak eta haien eragina

4.2.1. Adierazgarritasuna

Heuristiko honek gure iritzietan izan dezakeen eragina aztertzeko subjektuen erdiari honako egoera hau planteatu zitzaion galdetegian:

(B ereduko galdetegia) Nire herrian aspalditik italiar jatorriko 70 pertsona eta alemaniar jatorriko 30 pertsona bizi dira. Mediku-kontsultako itxarongelan mutil alai, dibertigarri eta sutsu batekin hitz egin nuen. Bere bizitza emozionalari buruz, eta iraganeko maitasun harremanei buruz hitz egin zidan. Zer gertatzeko aukera gehiago dago: mutila alemaniarra ala italiarra da?

Gainontzeko erdiari (A ereduko galdetegia) egoera bera planteatu zitzaion baina kasu honetan herrian italiar jatorriko 30 pertsona bizi dira eta alemaniar jatorriko 70. Beraz, hasiera batean aldatzen den gauza bakarra probabilitatea da. A ereduan estatistikoki probabilitate gehiago dago deskripzioa italiar batena izateko alemaniar batena baino. Hala eta guztiz ere, gehienek italiarren eta alemaniarren izaeraren gaineko estereotipoan oinarritu zuten epaia, eta ez zituzten kontuan hartu bi kategorietako probabilitateak. Emaitzek erakutsi bezala (2. taula), partehartzaileek bi egoeretan italiarra dela pentsatzen dute, deskripzioak italiarren prototipo edo estereotipoarekin bat egiten duelako.

2. taula

Aurretiko probabilitatearen eta estereotipoaren arabeko aukeraketa

	A eredua (% 70 alemaniarrek)	B eredua (% 70 italiarrek)	Guztira
Alemaniarra izatea	34	16	50
Italiarra izatea	59	74	133
Guztira	93	90	183

Adierazgarritasun heuristikoa erabiltzeak, beraz, probabilitatearen oinarritzko arauak aplikatu beharko liratekeen kontrako norabidean zeharkatzen du gure ustea eta estereotipo gisa funtzionatzen du.

Ikerketa klasikoetan (Kahneman, Slovic eta Tversky, 1982), subjektuek probabilitate bera esleitu zioten 70eko kasuari eta 30eko kasuari, egoera honetan ere antzeko eredia jarraitzen da. Kahnemanen arabera (1982), honelako epaiketa bat adierazgarritasun heuristikoaren aplikazio automatikoaren (berehalakoa, ez hausnartua) eraginez sortzen da.

Bestalde, laginaren tamainari arreta-ezaren zehartasuna gertatzen da laginean dagoen zenbait informazioa neurritz gain estimatzen denean, tamainari jaramonik egin gabe. Galdetegian ondorengo galdera planteatu zen:

Zure hiri/herrian bizi den emakume batek bere burua oso erlijiosotzat duela esan dizu. Zer gertatzeko aukera gehiago dago, emakumea etorkin musulmana izatea edo Euskal Herrian jaioa izatea?

Euskal Herrian bizi den musulmanen komunitatea 10.000 kidek bakarrik osatzen dute (Euskal Herriak 2.141.116 biztanle), eta bere burua oso erlijiosotzat duten musulmanak % 41 eta espainiarrak % 24 diren arren (Metroscopia, 2007), Euskal Herrian jaio den emakume bat izateko aukera gehiago dago. Hala ere, gure laginean % 81,2k dio ziur aski emakumea etorkin musulmana izango dela, eta, antza, soilik % 18,8k ulertzen du laginaren tamaina. Heuristikoa eta estereotipoa batera agertzen dira berriz ere.

Konjuntzio-falaziaren zehartasuna egiten da bi gertakarialdi berean gertatzea gertaera bat bakarrik baino probableagoa dela pentsatzean. Hona hemen egoera hau:

Eulalia Bogotan (Kolonbia) jaio zen. 35 urte ditu eta 8 urte daramatza Euskal Herrian bizitzen. Eulalia jendartekoa, dinamikoa eta kirolaria da. Kolonbiako unibertsitatean kazetaritza ikasi zuen. Ikasle garaian Giza Eskubideen aldeko hainbat taldetan hartu zuen parte. Zein baieztapen da gertagarriena?

- a. *Gaur egun Eulalia irratiko gidoilaria da.*
- b. *Gaur egun Eulalia Animalien Babeserako Elkarteko kidea da.*
- c. *Gaur egun Fatima irratiko gidoilaria da eta Animalien Babeserako Elkarteko kidea da.*

Emaitzek heuristiko hau bermatzen dute; izan ere, subjektuen % 41,4k bi aukera dituen deskripzioa aukeratu baitute (c), eta ez, ordea, aukera bakarra izanik (a eta b) gertatzeko aukera gehiago duten erantzunak (% 27,1 eta % 31,5, hurrenez hurren).

4.2.2. *Erabilgarritasuna edo eskuragarritasuna*

Erabilgarritasun edo eskuragarritasun heuristikoarekin emaitza benean esanguratsuak lortu dira. Hartara, adibidez, galdetegian afrikar gehienek nora emigratzen duten galdetzen da, eta aukeran balizko erantzun hauek eskaintzen dira: Europa, Asiara, Amerikara edo Afrikara berta-

ra. Nahiz eta emigratzen duen afrikarren % 75ek afrikar kontinentearen barruan emigratzen duen (Kabunda, 2007), ikerketan parte hartzen duten lagunen % 96,8k pentsatzen du afrikar emigrante gehienek Europara emigratzen dutela.

Afrikar etorkin hauek erabiltzen duten garraio-bideari buruz galdetu zitzaizanean, % 94k baino gehiagok esaten zuen pateran edo kaiukoan etortzen direla. Izan ere, pateren bidez iristen den pertsona-kopurua oso txikia da, ez da % 5era iristen (errealitateak erakusten du Espainiara etortzen diren etorkin gehienak Barajastik sartzen direla), baina irudi sentsazionalista eta eraginkorra da, eta irudi hori gutxitan agertzen da interpretatzeko eta analizatzeko elementu gehiagorekin.

4.2.3. Ainguratzea eta doitzea

Halaber, Euskal Herrian bizi eta beste herrialde batzuetatik etorri den pertsona kopurua % 13kotik behera edo gora dagoen galdetu zitzaizen subjektuei galdetegian (ainguratzea). % 66k erantzun zuen zifra hori baino handiagoa dela etorkinen kopurua. Horrek adierazten du ez dela errealitatea ezagutzen; izan ere, benetako kopurua % 4,6koa baita (zen). (Ikuspegi Barometroa, 2007).

Hala ere, ainguratzea agertzeak ematen den kopuruak subjektuen estimazioa zehazteko balio behar duela eskatzen du, eta gure kasuan erdizka gertatzen da. Hartara, subjektu kopuru handi batek (% 38,6k) kopurua % 10 eta % 20koaren artean dagoela dio. Alabaina, azpimarratzekoa da zenbatekoa % 25ekoa baino handiagoa dela esaten duen subjektuen kopurua (% 20); izan ere, errealitatea eta proposatutako ainguratzea ez doaz norabide horretan. Hala eta guztiz ere, euskal gizarteak Euskal Herrian bizi den etorkin kopuruari buruz duen pertzepzio orokorrera gerturatzen da zifra hori. Ikuspegi Barometroaren arabera (2007), euskal herritarrek uste dute Euskadin bizi den 4 biztanletik 1 atzerritarra dela. Immigrazioari buruzko pertzepzio hori benetan neurritz gainera da, biztanleen zenbait sektoretan zifra % 35era iristen da, eta gure ikerketako emaitzekin bat dator.

Estimatutako kopuru hori gehiegizkoa, egokia ala baxua zen baloratze-ko eskatzen zitzaizen subjektuei ikerketan (3. taula).

% 35ek dio gehiegizkoa iruditzen zaiola etorkinen % 21eko balioztatutako kopurua; hala ere, larriagoa da gehiegizkoa iruditzen zaien artean % 10ek bere balioespina % 10ean kokatzen duela ikustea, kopuru handiena (% 15) etorkinen % 20ko kopuruan dago. Datu hauek analisi sakona behar dute, izan ere, subjektu kopuru batek (% 20k) pentsatzen du etorkin kopurua egokia dela, haien presentzia % 19koa delakoan. Horrek hurrengo migrazioek izan ditzaketan doitze kognitiboen gainean baikor izatea ahalbidetzen du.

Hala ere, emaitza hauek erakusten dute, modu batean behintzat etorkinen etorkizuneko kopurua kendu dugula, kopuru hori (% 19) errealitatea dela onartu izan balitz bezala.

3. taula

Etorkin kopuruaren batez besteko estimazioa eta balorazio subjektiboa

	Zure ustez, Euskadin bizi den etorkin kopurua da...		
	Gehiegizkoa (% 35)	Egokia (% 20)	Baxua (% 45)
Euskal Herrian dagoen etorkin kopuruaren batez besteko estimazioa	% 21	% 19	% 10

Gure ikerketan etorkin kopurua handiegia dela pentsatzen dutenen datua (% 35) Ikuspegi Barometroaren ikerketan lortutakoa baino txikiagoa da (% 80). Gure lagina gazteek osatzen dutela kontuan hartzen bada, horrek erakusten du etorkin kopurua gehiegizkoa dela pentsatzen duten gazte kopurua txikiagoa dela, gauza bera pentsatzen duten helduena baino.

Hala ere, Ikuspegi Barometroaren ikerketan (2007), erroldatuta dauden atzerritarren kopurua jakitera eman ondoren, gehiegi direla pentsatzen dutenen kopurua % 59ra jaisten da, eta gutxi direla pentsatzen dutenen kopurua % 12tik % 32ra igotzen da.

Hortaz, eta immigrazio fenomenoari dagokionez, errealitatea eta errealitatearen interpretazioa (balioespena eta epaiketak) bide ezberdinetatik doazela ondoriozta daiteke.

5. EZTABAIDA ETA ONDORIOAK

Gaur egungo migrazio-mugimenduak Informazio-gizartearen marko kulturantz eta globalizatu baten barruan kokatzen dira. Ikerketa honetan bi gauza aztertu dira: alde batetik, gai honen inguruan ikasleek dituzten ideia eta diskurtso nagusiak, eta, bestalde, arrazonamendu heuristikoaren ikuspegitik immigrazioari buruzko epaiketak egiteko erabiltzen diren estrategiak.

Azpimarratzekoa da immigrazioari buruzko diskurtsoaren barruan iritzi eta jarrera mota ezberdinak daudela. Hala ere, kontrajarritako diskurtso sozialen artean — akasgabea eta zorrotza —, lagineko partehartzaileak lehenengotik gertuago daude. Migrazio-fenomenoarekiko jarrera irekia dute eta kulturen arteko harremanak gero eta maizago gertatzen diren heinean, gaiarekiko ulerkortasun handiagoa adierazten dute. Alabaina, partehartzaile batzuen artean jarrera alarmista eta itxiagoak ikusten dira: haien iritziz immigrazioa arazoa da, delinkuentzia sortzen du eta etorkinek beraiek isolatzen dute beren burua.

Hala eta guztiz ere, ondoriozta daiteke kulturarteko guneak sortzeko testuinguru egokia dagoela gazteen artean, kontuan hartuta kultura ezber-

dinetako pertsonen arteko harremanak boluntarioki sortzen direla, hau da, adiskidetasunak eta zaletasun konpartituek sustatzen dituztela.

Arrazonamendu heuristikoari dagokionez, ikerketaren emaitzek azpimarratzen dute oso garrantzitsua dela kontziente izatea heuristikoek batzuetan modu egokian funtzionatzen dutela eta eraginkorrak direla, baina, modu berean, batzuetan akatsak egiten ditugula, uste eta erabaki okerrak harturik. Hain zuzen ere, Euskal Herrira etorritako etorkinen kopurua zehaztean, edo egoera ezberdinetako protagonistak herritartasun edo erlijio jakin batekoak izateko probabilitateak aztertzean, subjektuek zehartasunak edo lasterbide mentalak erabili dituzte, eta horren ondorioz, emaitza okerrak eta arrazonamendu estereotipatuak izan dituzte. Hartara, esan daiteke hemen bizi den atzeritarren kopuruaren pertzepzioa eskuragarritasun heuristikoarekin lotuta dagoela, talde gutxituen ikuspenaren ondorioz bere benetako dimentsioa gainbalioesten baita.

Azken finean, komunikabideek ematen duten polo bakarreko ikuspegiaren eraginpean gaude, eta horrek, askotan, mugatu egiten ditu gure erantzunak. Gertaera zehatz bateko adibideetan pentsatzean joera handia dago imajinatzeko gertakari hori oso ohikoa dela, maiz gertatzen dela, ikusgarria edota nabaria izateagatik. Ikerketan fenomeno hau argi ikusi da immigratzeko erabiltzen diren garraioen kasuan edo afrikarrek emigratzen duten lekuaren adibidean.

Mugak eta XenoMediaren ikerketaren arabera (2004), paterak eta de-linkuentzia dira telebistek immigrazioari eta gutxiengodunei buruz hitz egitean erabiltzen dituzten gai nagusiak. Etorkinen irudikapena pateretan eta kaiukoetan oinarritzea etorkinen sarreraren ikuspegi sinplifikatua da.

Modu berean, immigrazioari buruzko uste sozialetan maiz agertzen da irudimenezko korrelazioa eta gure emaitzak horren adibide garbia dira. Interesgarriak dira gai honen inguruan Wagmanek (2002) egiten dituen ekarpenak; bere argudioen arabera, estereotipoak konstantea izan dira gizarte hartzaile guztietan, etorkinak kriminalizatzeko. Estereotipo horiek migrazio-mugimendu demografikoen ondorioz sortzen diren arazoengatik inguruko pertzepzio eta eztabaidetan distortsio faktore garrantzitsuak izaten dira; ez dute inoiz harreman handirik eduki errealitatearekin, baina auzi honi aurre egin behar izan dioten gizarte guztietan garrantzia eduki dute politiken, jarrreren eta harreman sozialen garapenean.

Bestalde, alemaniarren eta italiarren adibidean ikusi den moduan, subjektuek aspektu batzuen probabilitatea balioesten dute prototipo zehatz batzuk irudikatze gaitasunaren arabera, eta balioztatzen dute ezaugarri bat edo kategoria-partaidetza subjektu hori kategoria horren adierazgarritasun-mailaren arabera.

Oro har, nahikoa arrunta da heuristikoak erabiltzea, eta mundu errealean guztiok erabiltzen ditugu erabakiak hartzeko eta iritziak osatzeko. Hala ere, garrantzitsua da konturatzea erabaki eta uste horiek berrikusi egin behar direla. Denbora eta ahalegina aurrezteko erabilgarriak diren

arren, askotan emaitza okerretara garamatzate. Gehiegi erabiliz gero, edo orokortuz gero, immigrazioaren inguruko estereotipo sozial negatiboetan eror gaitezke. Estereotipatzeko dugun gaitasuna zalantzan jarri ezin badugu ere, edo horri uko egin ezin badiogu ere, pertsona erreflexiboagoak izan gaitzke eta zalantzan jar dezakegu pentsatzen eta egiten duguna. Beraz, arrazonamendu heuristikoki eta immigrazioki buruzko hezkuntza-proiektu batek gai honen inguruko ikuspuntu eta planteamendu batzuk aldatzen lagunduko luke. Proiektu honetan gure pentsatzeko eta arrazonatzeko moduan dauden «prozesu dualak» (1 eta 2 sistema) hartzen dira kontuan. Prozesu intuitibo eta erreflexiboen arteko oreka bilatzea da helburua, beste kulturekiko usteak eta jarrerak, eta immigrazio fenomenoak eduki gisa hartuta. Horretarako, jarrera-aldaketarako bi estrategia mota proposatzen dira, bide zentrala (sistematikoa eta erreflexiboa) eta periferikoa (heuristikoa).

Jasotze-data: 2008/12/01

Onartze-data: 2008/06/24

Abstract

Social cognition is the study of how people select, interpret, and use information to make judgments about themselves and the social world. People use mental shortcuts to simplify the amount of information they receive from the environment (Heuristics reasoning). The aim of this paper is to analyze in which way these shortcuts affect the construction of judgment about immigration.

We found out that students' beliefs about immigration range from impeccable ideas to relentless (implacable) ones. Students' beliefs about immigration seem to be related to heuristic reasoning. In fact, our results point out that stereotypical thinking could come from this use of heuristics or, may be, they function much like a "stereotype". These findings are quite consistent with the predominant dual-process accounts of reasoning and making decision as applied to development and education.

Keywords: *Secondary education. Higher education. Heuristic reasoning. Intercultural education. Immigration. Estereotype.*

El campo de la cognición social se ocupa de estudiar cómo las personas seleccionan, interpretan y usan la información para hacer juicios acerca de ellos mismos y del mundo. Para simplificar la cantidad de información que se recibe del medio a menudo se usan atajos mentales (heurísticos). El objetivo de este estudio es analizar, por un lado, el

discurso sobre la inmigración y, por otro lado, de qué manera afectan los sesgos heurísticos en la formación de esos juicios. Los resultados señalan la existencia de al menos 2 discursos diferenciados sobre la inmigración (impecable e implacable) y confirman el uso de heurísticos para estimar y enjuiciar el fenómeno de la inmigración. Estos resultados ponen las bases para realizar una propuesta de intervención educativa que evite las repercusiones negativas del uso de heurísticos en la formación de estereotipos negativos y prejuicios sobre la inmigración.

Palabras Clave: Enseñanza Secundaria. Enseñanza universitaria. Razonamiento heurístico. Educación Intercultural. Inmigración. Estereotipos.

Le domaine du cognitif social s'occupe d'analyser comment les personnes sélectionnent, interprètent et utilisent l'information pour s'auto-évaluer et évaluer le monde ; Afin de simplifier la quantité d'information que l'on reçoit du milieu, on utilise souvent des raccourcis mentaux (heuristiques). L'objectif de cette étude est d'analyser d'une part le discours sur l'immigration et d'autre part dans quelle mesure ces biais heuristiques influent-ils la formation de ces jugements. Les résultats signalent l'existence d'au moins 2 discours différenciateurs quant à l'immigration (impeccable et implacable), ils confirment l'utilisation d'heuristiques pour estimer et porter un jugement sur le phénomène de l'immigration. Ces résultats posent les bases d'une proposition d'intervention éducative évitant les répercussions négatives de l'utilisation d'heuristiques lors de la formation de stéréotypes négatifs et de préjugés autour de l'immigration.

Mots clé: Enseignement secondaire. Enseignement supérieur. Raisonement heuristique. Enseignement inter-culterelle. Immigration. Stéréotype.

BIBLIOGRAFIA

- Aguado, T. (2004): «Investigación en Educación intercultural», *Educatio siglo XXI: Revista de la Facultad de Educación*, 22, 39-58. orr.
- Bilbeny, N. (2002): *Por una causa común. Ética para la diversidad*. Bartzelona: Gedisa
- Carbonell, F. (1999): «Desigualdad social, diversidad cultural y educación», in Aja, E. (koord.), *La inmigración extranjera en España. Los retos educativos* (99-118 orr.). Bartzelona: Fundación La Caixa.
- Cervone, D.; Peake, P.K. (1986): «Anchoring, efficacy, and action: the influence of judgmental heuristics on selfefficacy judgments and behavior». *Journal of Personality and Social Psychology*, 50, 492-501 orr.

- Chaiken, S.; Liberman, A.; Eagly, A.H. (1989): «Heuristic and systematic processing within and beyond the persuasion context», in Uleman, J.S.; Bargh, J.A. (ed.): *Unintended thought* (212-252 orr.). New York: Guilford Press.
- Chapman, L. J. (1967): «Illusory correlations in observational report». *Journal of Verbal Behavior*, 6, 151-155 orr.
- De la Corte, L.; Blanco, A. (2006): «Conflictos intergrupales y prejuicios étnicos en las sociedades receptoras de inmigrantes», in Del Águila, R. (koord.), *Inmigración. Un desafío para España* (305-347 orr.). Madril: Fundación Pablo Iglesias.
- Díaz, C. (2005): «Evaluación de la falacia de la conjunción en alumnos universitarios», *Suma: Revista sobre Enseñanza y Aprendizaje de las Matemáticas*, 48, 45-50 orr.
- Díez, J. (2004): *Las dos caras de la inmigración*. Madril: Ministerio de Asuntos Sociales.
- Eiser, R.J. (1989): *Psicología social. Actitudes, cognición y conducta social*. Madril: Pirámide.
- Epley, N.; Gilovich, T. (2006): «The anchoring and adjustment heuristic: Why the adjustments are insufficient», *Psychological Science*, 17, 311-318 orr.
- Evans, J. (2002): «Logic and human reasoning: «An Assessment of the Deduction Paradigm», *Psychological Bulletin*, 128, 978-996 orr.
- Galotti, K. M. (2007). «Decision structuring in important real-life choices», *Psychological Science*, 18, 320-325 orr.
- García-Retamero, R.; Dieckmann, A. (2006): «Una visión crítica del enfoque de los heurísticos rápidos y frugales», *Revista Latinoamericana de Psicología*, 38, (3), 509-522 orr.
- Gigerenzer, G.; Todd, P. M.; The ABC Research Group (1999). *Simple heuristics that make us smart*. New York: Oxford University Press.
- Gilovich, T.; Griffin, D.; Kahneman, D. (ed.) (2002): *Heuristics and biases: The psychology of intuitive judgment*. New York: Cambridge University Press.
- Goldstein, W. M.; Hogarth, R. M. (2000): *Research on Judgment and Decision Making*. New York: Cambridge University Press.
- Hamilton, D. L. (1981): «Illusory correlations and stereotyping», in D. L. Hamilton (ed.): *Cognitive processes in stereotyping and intergroup behaviour* (115-144 orr.). Hillsdale, New Jersey: LEA.
- Hastie, R.; Dawes, R. (2001): *Rational Choice in an Uncertain World*. California: Sage Press.
- Higgins, E.T. (1996): «Knowledge Activation: Accessibility, Applicability, and Salience», in Higgins, E.T.; Kruglanski, A.W. (ed.): *Social psychology: Handbook of basic principles*, 133-168 orr. New York: Guilford Press.
- Ikuspegi Barometroa (2007): «Percepciones y actitudes hacia la inmigración extranjera». *Panorámica*, 18. Observatorio Vasco de Inmigración.
- Kabunda, M. (2007): «Las migraciones africanas: más horizontales que verticales», *Pueblos: Revista de información y debate*, 28, 34-36 orr.
- Kahneman, D. (2002). *Heuristics and biases: the psychology of intuitive judgment*. Cambridge: Cambridge University Press: New Cork.
- Kahneman, D.; Frederick, S. (2002): «Representativeness revisited: Attribute substitution in intuitive judgment», in Gilovich T., Griffin, D.; Kahneman, D. (ed.): *Heuristics and Biases: The Psychology of Intuitive Judgment*. New York: Cambridge University Press.

- Kahneman D. (2003): «A perspective on judgment and choice: mapping bounded rationality», *American Psychologist*, 58, 697-720 orr.
- Kahneman, D.; Slovic, P.; Tversky, A. (1982). *Judgment under uncertainty: Heuristics and biases*. New Cork: Cambridge University Press.
- Kruglanski, A.; Orehek, E. (2007): «Partitioning the Domain of Social Inference: Dual mode and systems models and their alternatives», *Annual Review of Psychology*, 58, 291-316.
- Lorite, N. (2004): *Cómo miran los medios la inmigración y transmiten la diversidad*. Bartzelona: Portal de la Comunicación, Incom.
- Luciani, G. (1993): *Migration Policies in Europe and the United States*. Boston: Kluwer Academic Publishers.
- Metroscopia (2007): *La comunidad musulmana de origen inmigrante en España*. Madril: Ministerios de Interior; Justicia y de Trabajo y Asuntos Sociales.
- Moya, M.; Puertas, S. (2008): «Estereotipos, inmigración y trabajo». *Papeles del psicólogo*, 29, 6-15 orr.
- Mugak; XenoMedia (2004): *Los Medios de Comunicación y Minorías - Haciendo Accesible la Diversidad* [http://www.mugak.eu/ef_etp_files/view/diversidad_y_programaci%C3%B3n2004_informe.pdf?revision_id=10186&package_id=9165] (2007ko urriaren 15ean).
- Nisbett, R.; Ross, L. (1980): *Human inference: strategies and shortcomings of social judgement*. Englewood Cliffs, New Jersey: Prentice-Hall.
- OCDE (2008): *Migración y Países en Desarrollo* [http://www.oecd.org/topic/0,3373,en_2649_37415_1_1_1_1_37415,00.html]. (2008ko martxoaren 28an).
- Paulos, J.A. (1995): *Un matemático lee el periódico*. Bartzelona: Tusquets.
- Petty, R.E.; Cacioppo, J.T. (1986): «The Elaboration Likelihood Model of persuasion», in Berkowitz, L. (ed.): *Advances in Experimental Social Psychology* (123-205 orr.). New York: Academic Press.
- Popkin, S. (1991): *The Reasoning Voter*. Chicago: University of Chicago Press.
- Sloman, S. A. (1996): «The empirical case for two systems of reasoning», *Psychological Bulletin*, 119, 3-22 orr.
- Solé, C. (2001). *El impacto de la inmigración en la economía y en la sociedad receptora*. Bartzelona: Anthropos.
- Stanovich, K.E.; West, R.A. (2000): «Individual differences in reasoning: Implications for the rationality debate», *Behavioral and Brain Sciences*, 23, 645-726 orr.
- Stein, E. (1996): *Without Good Reason: The Rationality Debate in Philosophy and Cognitive Science*. Oxford University Press.
- Sustein, C. (2005): «Moral heuristics», *Behavioral and Brain Sciences*, 28, 531-573 orr.
- Zanfrini, L. (2007): *La convivencia interétnica*. Madril: Alianza.
- Wagman, D. (2002): «Estadística, delito e inmigrantes», *Gobernabilidad y seguridad sostenible*, 7.
- Wrightsmann, L.S. (1999): *Judicial decision making. Is psychology relevant?* New York: Kluwer Academic/Plenum Publishers.